

EUROPAKO GEOGRAFIA

A) EZAUGARRI FISIKOAK

1. FAKTORE NATURALAK

ERLIEBEA

KLIMA

B) GIZA EZAUGARRIAK

2. POPULAZIOA

3. HIRIAK

HIRI AGLOMERAZIOAK

HIRI ESKUALDEAK

GARRAIO AZPIEGITURAK

4. EKONOMIA

NEKAZARITZA

INDUSTRIA

MERKATARITZA

GARRAIOA

TURISMOA

A) EZAUGARRI FISIKOAK



1. FAKTORE NATURALAK

ERLIEBEA

Europako erliebea laua da oro har, traba fisiko gutxirekin (eta daudenak, Alpeak eta Pirinioak kasu, tradizionalki gaindituak izan dira). Bere ezaugarri nabarienetarikoak kostalde zatikatua da, irla eta penintsula ugariarekin; ondorioz, itsasoak eragin handia du kontinente osoan zehar.

A) EUROPAKO ERLIEBEEN SORRERA

Munduko historia geologikoan zehar, egun Europa osatzen duen lurak hainbat aldaketa ikusi ditu.

-Duela 570 eta 230 milioi urte artean, **PALEOZOIKO**an sortu ziren egun Europan aurkitzen diren material zaharrenak, milioi urteetan zehar estalirik egon eta metamorfosi prozesu bat pairatu dutenak, oso material gogor bilakatu:

orogenia kaledoniarren eraginez. Egun kaledoniar arku izena hartzen duen eskualdean aurkitzen dira: Eskandinavia eta Britainiar irlak. Lurralde hauetan aurkitzen den material ohikoena **granitoa** da.

Orogenia hertziniarrak (duela 240-230 milioi urte) egungo Europako mendikate gehienetan aurkitzen diren materialak azaleratu zituen (Massif central, Ardennes, Vosgoak, Oihan Beltza, Sudeteak eta Iberiar penintsula mendebaldeko mendikateak).

Gainera, kontinente iparraldeko lautada lurralde guztiak (Alemania, Polonia, Errusia) azaleraturik zeuden, baina egungo arengandik oso desberdina zen erliebe batekin (egun, erliebe horiek higaturik eta sedimentuz estalirik daude).

-Duela 230 eta 65 milioi urte artean, **MESOZOIKO**an, orogenesi gutxi gertatu zen, eta **higadura**-prozesu handia nagusitu zen erliebe paleozoikoetan.

Duela 200 milioi urte, plaka tektonikoen **Pangea** superkontinentea eta **Thetis** itsasoa osatu zituzten; itsasoan zen lurrean sedimentuak pilatzen joan ziren.

Horregatik, material mesozoiko gehienak **sedimentarioak** dira.

-Duela 65 milioi urtetik honat garai **ZENOZOIKO**a zabaltzen da:

garai honetan nagusitu den prozesu geologikoa **orogenia alpetarra** izan da, munduko mendikate altuenak altxarazi dituena: Andeak, Himalaia, Hindu Kush... Europan, hegoaldeko mendikateen tolestean izan zuen nagusiki indarra: Pirinioak, Alpeak, Betika, Apeninoak, Karpatoak, Alpe dinarikoak, Pindo, Rodope, Balkanak... Mesozoikoan higatutako material paleozoikoak hautsi eta altxatzean sortu ziren.

Era berean, hauen aldamenen behera egindako lurraldeetan **haran sedimentarioak** sortu ziren: Guadalquivir, Ebro, Po, Erroma-Toskanako depresioa, Hungaria, Valakia.

B) EUROPAKO ERLIEBEEN EGITURA

Europako erliebean hiru egitura nagusi bereizten dira: lautadak, mendikate zaharrak (kaledoniarrak eta hertziniarrak) eta mendikate alpinoak.

Lautadak.

1. Iparraldeko lautada.

(Ingalaterra ekialdea; Normandia; Herbehereak; Alemania iparra; Danimarka; Polonia eta bertatik bi luzapen; Errusiarantz / Eskandinaviarantz)

Lautada partzialki inundatua da, glaziarren eragina jaso duena.

Ipar itsasorantz inklinaturik dago.

Garai hertziniarrean sortu zen, eta ez du indar tektoniko handirik jaso.

MATERIALAK.

Metaketa jarraia ondorioz osatutako materialak aurkitzen dira. Horrela, behean metamorfosi prozesu batetik pasatutako material gogorak daude (garai hertziniarreko zokalo zaharra), eta hauek estaliz material gero eta bigunagoak, sedimentazioaren ondorioa (hondarrak, buztinak eta abar).

ERLIEBEA.

Ez da erabateko lautada, aldapa paisaia baizik. Hainbat gunetan material gogorragoak azaldu dira, higadurari erresistentzia handiagoa egiten diotenak. Ondorioz, altitudea 0-200 metro artean aldatzen da.

Lautada honen berezitasunetarikoa bat KOSTA da; oso progresiboki sartzen da itsasoan, eta ondorioz mareek eragin handia dute. Honen adibide argiena Holanda da (Rhin ibaiaren delta handia), itsas mailan edo honen azpitik, lurraldearen parte handi bat polderren bidez itsasoari irabazi zaiolarik.

Holanda eta Danimarka artean aunitz irla aurkitzen dira (irla frisoiak), itsas mailaz apur bat goitik ateratzen diren dunak oroz bat.

2. Mendikate zaharrei lotutako lautadak.

(Hegoaldetik iparrera doazen ibaiek markatzen dituzten sakanak; hegoaldea iparraldearekin konektatzen dute, mendizerren artean pasa eta ipar lautadan sartzen dira: Sena / Mosela / Mosa / Rhin / Main / Wesser / Elba / Vistula).

Material zaharren altxamenduen aldamenen hondoratutako gunek dira.

Gero, sedimentuz estalirik gelditu dira. Gune hauen eta mendigune zaharren artean hausturak ikusten dira, mendikate alpinoetan ez bezala.

Altitude baxuak eta klima epelagoak jarduera ekonomikoen garapena laguntzen dute.

3. Plegamendu alpinoei lotutako lautadak (lautada mediterraneoak).

(Lisboa-Tejo / Sevilla-Guadalquivir / Ebro / Po / Toskana-Florentzia-Erroma / Akitania / Hungaria / Itsaso Beltza / Kaspiar sakonunea / Aral itsasoko sakonunea) Lautadak baino, depresioguneak dira, sarri sumendiei loturik.

Plegamendu alpinoen aldamenen hondoratutako gunek dira, hausturarik gabe.

Bertan jatorri sedimentarioko materialak aurkitzen dira, berriak beraz, erliebe laua areagotzen dutenak, erliebe erresidualak eragindako aldapatxoak kenduta.

4. Materialen metaketaren ondorioz sortutako lautadak.

Materialen metaketaz estalitako sakanak; Parisko sakana kasu.

Mendikate zaharrak.

1. Mendikate hertziniarrak.

(Massif central / Vosgoak / Ardennes / Oihan Beltza / Harz / Turingiako basoa / Bohemiak basoa / Sudeteak / Renania)

Mesozoikoan, lurralde hauek lautada handi bat osatzen zuten, erabat higatua. Plegamentu alpinoarekin (hemen ez zena horren gogorra izan), hausturak gertatu ziren materialetan, altxamenduak eta azpiko materialen azalera eraginez.

MATERIALAK.

Horregatik, material zaharrak aurkitzen dira: granitoak eta eskistoak (azken hauek jatorri sedimentarioa dute, baina oso gogorturik egoten dira). Material kristalizatu hauek ahalbidetzen dute gune hauetan egotea Europako ikatz eta burni meatze handienak.

ERLIEBEA.

Plegamendu alpinoak eragindako altxamenduak eta ondorengo higadurak mendi baxuak sortu dituzte, 1000 metroko garaiera nekez gainditzen dutenak, oso biribilduak eta higatuak. Sarri sumendiak hurbil izaten dituzte. Altuera handienak Frantziako Massif central-ean aurkitzen dira, 1800 metro ingururekin.

2. Mendikate kaledoniarrak.

(Irlanda / Gales / Eskozia / Norvegia).

Kaledoniar orogeniarekin sortu eta alpetarrarekin altxatutako mendizerrak. Oro har mendikate hertziniarren antzeko itxura dute, baina baxuagoak izaten dira. Fenomeno bolkanikoak ere ugariak dira (adibidez Erraldoien galtzada Irlandan). Latitudearen eraginez, landaretza eskasa izaten da, mendi biluzien paisaia eratuz. Mineralak (burnia, ikatza) ugariak dira hemen ere, eta meatze hauen inguruan (gainera, ur ugartasuna zutenak) sortu zirelarik lehen gune industrializatuak: Birmingham, Liverpool, Manchester, Cardiff, Leeds, Glasgow.

Mendikate alpinoak.

(Kataluniako kostaldeko mendilerroa / Pirinioak / Alpeak / Jura / Apeninoak / Alpe dinarikoak / Pindo / Karpatoak / Balkanak / Rodope)

Mediterraneo inguruan aurkitzen dira, orogenia alpetarra gogorragoa izan zen tokian.

MATERIALAK.

Itsasotik altxatutako materialak dira bereziki, jatorri sedimentarioak: kareharria, margak, buztina, igeltsua, hondarra... oro har bigunak direnak. Material gogorragoak soilik indar oso handiko plegamendua pairatu zuten zonaldeetan aurkitzen dira: Pirinio eta Alpe gailurretan. Bertan, azpiko materialak gorantz atera ziren, besteek alboetarantz egin artean.

ERLIEBEA. Mendi plegatuak, malkartsuak.

Iberiar penintsulako mendiguneak – Meseta.

Mesetak eta inguruko mendiguneek mendikate hertziniarren bilakaera izan dute, baina orogenia alpetarrak indar handia izan zuen bertan, eta 1000 eta 2000 m arteko garaierak hartzen dituzte.

KLIMA

Europako klima oro har epela da, prezipitazio ugarirekin; ezaugarri honek giza jarduerak (nekazaritza – industria) garatzeko erraztasuna ematen du.

Klima hau baldintzatzen duten faktoreak hauek dira:

A) **LATITUDEA**. Europa latitude ertainetan kokatzen da (30°-tan Kreta, hegoaldeko muturrean, eta 60°-tan Eskandinavia, iparrean).

Beraz, bi antizikloi-guneren artean kokatzen da, Arktikoa iparrean eta Saharako hegoaldean; bi horien artean Islandiako beherapen termiko gunea kokatzen da, Gulf Stream itsas korrontearen bidez borraskek etengabe bidaltzen dituen Atlantikotik Europara.

Urtaroaren arabera, presiogune hauek tokiz aldatzen dira.

B) **ITSASOA**. Kontinentearen gehiengoak itsasoaren eragin handia jasotzen du, batez ere mendebaldean; barnerago joan ahala, euri fronteak deskargatzen doaz. Ondorioz, barnealdean prezipitazio gutxiago daude kostan baino, eragina duena anplitude termikoan.

C) **ALTITUDEA**. Altitude handiagoan, tenperatura baxuagoak aurkitzen dira, aire masak hoztu egiten baitira. Orduan, lurrina kondentsatu eta prezipitazioak gertatzen dira.

Europako klima motak.

1. KLIMA MEDITERRANEOA.

Klima epela da, azpitropikala berez.

KOKAPENA.

Espainia, Frantzia, Italia, Kroazia, Albania, Grezia eta Turkiako alde mediterraneoak.

Udan, Saharako antizikloiak iparrera egitean, lehortea pairatzen dute eskualde hauek (maiatzetik irailera); udazkenetik aurrera berriz (urria, azaroa, abendua), prezipitazio gehienak kontzentratzen dira, kasu gehienetan oso bortitzak (*tanta hotza*).

Bataz besteko prezipitazioak 300-400 mm-koak izaten dira.

BARIANTEAK:

A) Berezko mediterraneoak.

Kostaldean ematen da.

TENPERATURAK. Urtarrilean 8-10° artean / Udan 25° inguru.

PREZIPITAZIOAK. 400-600 mm, batez ere udazkenean. Udan lehortea ematen dira, eta hainba gunetan (mendebaldean nagusiki), borraskek hezetasuna eragin dezakete udaberrian ere.

B) Azpimediterraneoak.

Itsasotik apur bat barnerago ematen dira, eta kontinentalizazio prozesu txiki bat antzematen da.

TENPERATURAK. Neguan 5-7° artean / Udan 28° inguru.

PREZIPITAZIOAK. Berdin, garai berdintsuetan.

C) Mendikoa.

TENPERATURAK. Negu oso hotzak / Udan 15-20° artean / Eguneko kontraste handiak.

PREZIPITAZIOAK. Neguan oso handiak / Udan egunekoak (ekaitzak).

2. KLIMA ATLANTIKOA.

Eremu klimatiko honen ezaugarri nabarmenena hezetasun handia da.

KOKAPENA.

Portugal, Espainia, Frantzia, Belgika, Herbehereak, Alemania, Danimarka eta Norvegiako erlantz atlantikoak eta Britainiar Irlak.

Atlantiar itsasotik urtaro guzietan eta erraz sartzen dira borrasak; ez dago lehorterik. Desberdintasunak batez ere latitudearen arabera ematen dira.

BARIANTEAK.

A) Hezea eta freskoa.

Britainiar Irletan.

PREZIPITAZIOAK. Konstanteak dira urtaro guzietan, borrasak Islandiaren (udan) eta Irlandaren (neguan) artean mugitzen direlako.

Bataz besteko prezipitazioak 1500 mm-koak dira, ekialdeko kostaldeetan izan ezik (bertan 700 mm-koak izaten dira).

TENPERATURAK. Neguan 15-17° artean / 3-6° artean.

B) Hezea eta beroa.

Bretainiatik Portugalera, tarte horretan oso aldakorra den arren.

PREZIPITAZIOAK. Urte osoan zehar, urtaro lehorrik gabe.

Udan, Azoreetako antizikloiaren eraginez, urriagoak dira, eta neguan ugariagoak, fronte polarrak hurbiltzen direlako.

Bataz besteko prezipitazioak 900 eta 1500 mm artekoak dira.

C) Erdi-hezea eta beroa.

Frantzia erdialdean.

PREZIPITAZIOAK. 800 mm inguru.

TENPERATURAK. Neguan 4° inguru / Udan 18-20° artean.

D) Iparatlantiar inguruetakoa mendialdeko klima.

Irlandan, Eskozia iparrean, Norvegian.

Itsasora begira dauden mendialdeetan ematen da.

PREZIPITAZIOAK. 1500 mm baino gehiago.

TENPERATURAK. Neguan 1-3° artean / Udan 11-13° artean.

E) Azpiatlantiarra.

Benelux, Frantzia ekialdean eta Alemanian, Danimarkan.

Uda motzak izaten dira.

PREZIPITAZIOAK. 700 eta 1000 mm artean.

TENPERATURAK. Tarte handiagoak; neguan, Siberiako antizikloiaren eraginez, 0°.

3. KLIMA AZPIKONTINENTALA.

Klima atlantiarraren eta kontinentalaren arteko trantsizio gunea da.

KOKAPENA.

Alemania ekialdea, Polonia mendebaldea eta Txekia; Po bailara.

Anplitude termiko ertaina eta prezipitazio ertainak (600-700 mm, ugariagoak udan Siberiako borrasaren eraginez) ditu ezaugarri.

BARIANTEAK.

X) Klima alpinoa.

Alpe eta Karpato mendietan.

PREZIPITAZIOAK. Urtaro guzietan oso ugariak.

TENPERATURAK. Negu oso hotzak, 0 azpitik aunitz gradu. Udan 5-10° bitartean, baina uda oso motza da.

4. KLIMA KONTINENTALA.

Itsasoko eragin txikia jasotzen duten eskualdeetan ematen da.
KOKAPENA.

Europa barnealdean; Ekialdea, Errusia.

BARIANTEAK.

A) Kontinental errusiarra.

Polonia ekialdetik Uraletaraino, Suedia ekialdea eta Finlandia barne.

PREZIPITAZIOAK. Neguak nahiko idorrak dira Siberiako antizikloiagatik, baina udan borraska nagusitzen da Siberian, eta prezipitazioak ugaritu egiten dira. Batuz besteko prezipitazioak 400-600 mm-koak dira (urriak), gero eta idorragoak egiten direlarik ekialderantz joan ahala. Bertan, lehen estepagunetak aurkitzen dira.

TENPERATURAK. Kontraste handiak dira ezaugarri nabarmenena. 4 eta 6 hilabete artean (azarotik apirilera), batuz besteko tenperaturak zero azpikoak izaten dira (-5 eta -15° gradu artekoak). Udan batuz beste 20° izaten da. Eguneko kontrasteak ere handiak izaten dira.

B) Kontinental danubiarra.

Austria, Hungaria, Serbia, Errumania eta Bulgarian.

PREZIPITAZIOAK. 400 eta 600 mm artean, nagusiki udaberrian (Mediterraneoko borrasken eraginez) eta udazkenean (*tanta hotza*).

TENPERATURAK. Negu hotzak (-2 eta -5° artean), uda beroak (20-25°).

5. KLIMA POLARAK.


Zirkulu polar arktikotik iparrera gelditzen diren lurretan (Islandia, Norvegia, Suedia, Finlandia eta Errusia iparrean). Bertan, baldintza klimatiko gogorrek zaildu egiten dute giza asentamenduen eta jarduera ekonomikoen garapena.

Beraz, Europako klimak hainbat faktore natural mesedegarri eskaintzen ditu, oro har, asentamenduetarako eta jarduera ekonomikoetarako; klima epelak dira, prezipitazio ugariarekin. Baina nekazaritza eta industriaren garapen oso hedatuak, eta gainera denbora oso luze batean zehar, faktore natural mesedegarri horiek aldatzea ekarri du, eta egun hainbat arazo ekologikoren ondorioak nabaritzen hasten ari dira:

- DESERTIZAZIO PROZESUA (hegoaldean). Gizakiak landaretza naturala transformatzearen ondorioa, industriak eta giza aglomerazio handiek eragindako kutsadura ambientala eta berotegi-efektuak indartua.

- EURO AZIDOAK (batez ere iparmendebaldean, Holandan, Alemanian edota Danimarkan, industria-kontzentrazio handia duten eskualdeak baitira). Atmosferan azido anhidrikoa pilatzen da; hau euriarekin erortzean, landaretzarengan kalte handiak eragiten ditu. Horrela, garai batean Europako baso hostoerorkor handiena Oihan Beltza baldin bazen, egun Irati da, lehendabizikoan euri azidoak landaretzaren parte handi bat hil baitzuen.

- IBAI ETA KOSTALDEEN KUTSADURA. Europan, kutsadura maila kezkarriak ez dituen kostalde bakarra Islandia irlarena da.



B) GIZA EZAUGARRIAK.

2. POPULAZIOA.

Europak 500 milioi biztanle inguru ditu XXI. mendearen hasieran, eta Europar Batasunaren batz besteko dentsitatea 135 biztanlekoa da km karratuko.

Hala ere, biztanleria hori ez da homogeneouski banatzen, eta oso kontzentratua dago, nagusiki mendebaldeko Europan. Horrela, Belgika eta Holanda bezalako herrialdeek 200 biztanle baino gehiago dituzte km karratuko. Populazio handiena duten herriak Errusia (140 milioi biztanle) Alemania (80 milioi), Britainia Handia (70 milioi), Frantzia (65 milioi), Italia (59 milioi) eta, neurri txikiagoan, Espainia (46 milioi) eta Polonia dira. Horrela, biztanleria hori lau ardatz nagusitan kokatzen da:

A) MENDEBALDEKO EUROPAKO ARDATZA, gune nagusi hauek zeharkatuz:

Liverpool, Leeds, Manchester, Birmingham, Londres, Paris (eta Île-de-France eskualdea), Belgika eta Holandako hiriak (Amsterdam, Rotterdam, Bruselas), Estrasburgo, Rhin bailara (Alemaniako Rhin-Ruhr eskualde urbanoa: besteak beste Essen, Düsseldorf, Kolonia, Bonn / Dortmund, Frankfurt, Stuttgart), Lyon, Geneva, Zurich; Alpeak zeharkatu eta jarraipena du Po bailaran (Milan, Turin, Genoa).

B) MEDITERRANEOKO ARDATZA, honako gune nagusiekin:

Alacant, Valentzia, Bartzelona, Montpellier, Marseilla, Niza, Genoa, Flortentzia, Erroma, Napoli.

C) EUROPA ERDIKO ARDATZA, aglomerazio nagusiak hauek dituen:

Berlin, Dresde, Leipzig

Praga, Krakovia, Lodz

Munich, Viena, Bratislava, Budapest, Bukarest.

D) EKIALDEKO ARDATZA, Vartsovia, Minsk, Kiev eta Moskuk egituratua.



Egun, Europako biztanleriaren hazkunde naturalak 0 inguruko balioak ditu, eta murriztuz doa. Hainbat herrialdek hazkunde negatiboei aurre egiten diete edo aurre egin behar izan diete.

Joera honi aurre egiteko bi aukera daude; berezko hazkundearen joera aldatu eta jaiotza tasa ugaritzeko politika sozialak indartzea (hainbat herrialdek egin dutena Ipar Europan, baina oro har egun hauetan neoliberalismorantz mugitzen diren gobernuen praktiken aurkakoak), edo **immigrazioa** bultzatzea.

IMMIGRAZIOA.

Immigrazioa ez da ohiko fenomeno izan Europan XX. mendera arte, eta azken hamarkadetan hazkunde handia izan du; honen aurrean kontrako erreakzioak sortu dira helmuga herrialdeetan. Hala, neofaxismoaren eta eskuin muturraren gorakada handia nabari da, horretan oinarritzen baitu bere diskurtsoa.

Immigrazioa XX. mende erditik aurrera nagusitu da Europan.

-1950etik aurrera, kontinente barneko mugimenduak hasi ziren, errenta altuena zuten herrialdeetarantz: Frantzia, Alemania eta, neurri txikiagoan, Suitza, Belgika edota Holandara. Horrela, 1965. urterako Europako biztanleriaren % 1'5 immigrantea zen. 1980ko hamarkadara arte fenomenoak ezaugarri horiek izaten segitu zuen; Europako immigrante gehienak (kolonietan jatorria zutenak salbu) europarrak ziren. Adibidez, Frantzian portugesez kolonia handiak sortu ziren, edo Alemanian espainiarrenak.

-Handik aurrera, joera aldatuz joan zen, eta immigranteak kontinentez kanpotik etortzen hasi ziren, baita immigrazio-tradizioz ez zuten herrialdeetara ere.

2010. urterako, Europako biztanleen % 5 zen immigrantea, eta horien erdiak bakarrik zuten jatorria Europan Batasuneko beste herrialdeetan. Hauei ilegalki dauden beste immigrante-multzo handiak batu behar zaizkie, baina arlo honetan ez dago datu fidagarrik.

Herrialde europarren artean, dena den, desberdintasunak daude; Alemanian biztanleen % 10 immigrantea den bitartean, kopuru hori % 1eko da Grezian.

Jatorriari dagokionez, immigranteen erdia kanpokoa da dagoeneko. Talde handienak hauek dira: turkiarrak (2'5 milioi inguru daude, gehienak Alemanian; gehienbat kurdoak dira, eta konbenioen bitartez olatuka joaten dira Alemaniara, eskulan merkea osatzen baitute), magrebiarrak (bereziki Frantzian, hau baita herrialde horien metropoli ohia) eta ekialdeko europarrak, balkandarrak edota sobietar ohiak (bereziki Alemanian).

Kanpoko komunitate handiak biltzen direnean, integrazio arazoak sortzen ahal dira, hala nola arrazismoa bertako biztanleen artean, eta ghettoen agerpena (immigranteak auzune merke eta kaskarretan pilatzen dira; adibidez, Frantziako immigranteen % 40 Île-de-France eskualdean bizi dira).

Immigrante hauen portaera demografikoari dagokionez, jatorrizko herriaren ohiturak ekartzen dituzte, normalki bertakoa baino jaiotza-tasa handiagoarekin; baina bigarren belaunaldikoek dagoeneko harrerako herriko ohiturekin parekatzen dituzte (Alemaniako turkiarren kasuan ikusten da).

-Etorrizkoari begira, immigrazioen jatorrizko herrialde bezala bi fokoa indartzen ari dira: alde batetik, estimazioen arabera 15 milioi inmigrante jasoko ditu Batasunak Ekialdeko Europatik (bai EB barnekoak, errumaniarrak edo poloniarrek bezala lurralde osoan trabarik mugitzeko aukera dutenak, eta bai herrialde mugakideetakoak, adibidez ukrainiarrak edo bielorrusiarrak);

bestetik, Afrika beltzeko immigranteak gero eta ugariagoak dira (bereziki Gineako golko herrialde pobreetakoak, jaiotza tasa oso handia dutenak, baina ekonomikoki eta azpiegiturei dagokionez oso herri pobreak direnak. Ondorioz, biztanleak bortxaz ateratzen dira, bizimodu baten bila. Immigrazio masibo hau mugatzeko modua jatorrizko herrialdeetan inbertitzea izango litzateke.

Horrela, Europar Batasunean batz besteko hazkunde naturala oso baxua da (% 0-0'5 artean), immigrazioarekin konplementaturik % 1'5-2ko hazkunde erreala ematen duena. Dena den, herrialde desberdinetan ez da egoera bera aurkitzen:

- Herrialde batzuek hazkunde natural positiboa mantzentzen dute oraindik ere, eta gainera immigrazio handi samarra jasotzen dute. Britainia Handiaren, Herbehereen eta, nabarmenki, Frantziaren kasua da.

- Beste batzuek, berriz, hazkunde natural oso txikia dute, kasu batzuetan negatiboa, eta immigrazioari esker hazten da hauen biztanleria: Espainia, Italia eta Alemania dira adibide aipagarrienak.

- Eta, hirugarren multzo batean, saldo negatiboa izateaz gain emigrazio herrialdeak direnak aurkitzen dira: Errumania, Hungaria edota Bulgariaren kasua.

Orokorki, prozesu nabarmengarriena **biztanleriaren zahartzea** da.

Honen jatorria generazioen berritzerik ezean dago; 60ko hamarkadan jaio zen generazio jendetsuena, eta orduz geroztik joera jaiotza-tasa gutxitzea eta bizi itxaropena haztea da.

Horrela, 1995. urtean Europako biztanleen % 18k hamabost urta baino gutxiago eta % 15ek hirurogeita bost baino gehiago zituzten bitartean, 2010ean % 16 dira gazteak eta beste hainbeste zaharrak; 2020. urterako, espero da hamabost urtetik beheitikoak % 13-14 izatea, eta adinekoak % 20. Herrialdeka, iparraldekoak izan ziren dinamika horretan sartu ziren lehenak, baina Mediterraneo ingurukoak (Italia eredu) oso azkar egin dute bide hori. Egun, populazio zaharrena Alemania eta Italiak dute, eta gazteena Frantzia, Holanda eta Irlandak.

Biztanleriaren zahartze honen lehen ondorioa estatu sozialaren kolokan jartzea da; izan ere, erretiro adinak ez dira atzeratzen (ofizialki 65 urte, praktikan 60-61), eta segurtasun sozialak ezin ditu halako giza egituraren beharrak bermatu. Erretiratuek diru publiko gehiago kontsumitzen dute (osasuna, zaintzak), eta horri langabezia gehitu behar zaio (populazio aktiboaren parte aldakorra, kotizatu gabe alderantziz errekurtsio publikoak kontsumitzen dituen).

Populazio aktiboa (15 eta 65 urte bitartekoa) biztanleriaren % 68 inguru da egun, baina kopuru hori gutxitu egin daiteke, adinduen portzentaia hazi ahala.

ONDORIOAK

- Populazio aktiboa gero eta zaharragoa da. Honek, esperientzia gehiago suposatu arren, soldata (eta, ondorioz, kostu) handiagoak esan nahi du, eta dinamismoak, formatzeko gogoak eta ahalmen fisikoak (produktibitateak, oro har) behera egitea.

- Populazioaren zahartzearekin, hauen bizi-maila bermatu behar da, zergak haziz. Soldaten % 40 zergatan doa, kontsumoko zergak gehitu behar zaizkio horri; honek guziak enpresen konpetitibitatea murrizten du.

- Giza ondorioak:

 - Populazio zaharragoa kontserbadoreagoa izaten da; alderdi kontserbadoreen bozkak handitzea antzematen da.

 - Era berean, gobernu batek momentu batean erretiratuen aurkako erabaki bat hartu behar baldin badu, erreakzio bortitzak jasoko ditu.

Arlo honetan, Espainiako gobernuak bere egin du Europar Batasunaren politika, adibidez erretiro-adina 67 urtera luzatuz populazioa gero eta gehiago bizi delako aitzakiaz; biztanleek gero eta urte gehiagoz kotizatu, orduan eta diru gehiago bilduko dute arka publikoek.

AURREIKUSPENAK.

Zaila da etorkizunean Europako biztanleriak izango duen bilakaera eta portaera. Horren baldintzaile nagusienak hazkunde naturalaren bilakaera eta immigrazioa dira.

A) MEDITERRANEOKO ESTATUAK.

Espania eta Italia bezalako herrialdeetan, hurrengo urteetan biztanleria galtzea da ziurrena. Herrialde horiek Iparraldeko beste herri batzuk baino biztanleria gazteagoa dutela erakusten du adin-piramideak, baina haurrik ez.

Ugalkortasun tasa oso baxua da (Euskal Herrian, esate baterako, 0'9 haurrekoa da emakume bakoitzako), eta immigrazioa alde izan arren, honek ez du joera hori konpentsatzen. Espainiak 6 milioi biztanle galduko dituela aurreikusten da; Italiak 16.

B) IPAR EUROPAKO ESTATUAK.

Herrialde hauek (Danimarka, Norvegia, Suedia) izan ziren biztanleriaren galera eta zahartzea lehendabizi pairatu zutenak, eta aurreko urteetan biztanleria asko galdu dute; baina familiaren aldeko politika sozialak martxan jarri eta egun ugalkortasun tasa berreskuratu egin da (2 haur emakumeko). Immigrazioa asko kontrolatzen da, baina hala ere saldo positiboa da. Horrela, herrialde hauek biztanleria mantendu edo apur bat hazten da.

C) EKIALDEKO ESTATUAK.

Errepublika Baltikoen, Errusiaren edota Ukrainaren kasua da. 90eko hamarkadara arte erregimen komunisten menpe egon ziren herrialdeak dira, eta ugalkortasun tasa oso kontrolatua zegoen; 2'2, 2'3 haur izaten ziren batazbestekoak, emakumeko, eta 60ko hamarkadako boom demografikoa adibidez ez zen nabaritu.

Egun, ugalkortasun tasak oso baxuak dira (1'2, 1'3), eta ez dute generazioen berritzea ahalbidetzen; gainera, herri emigranteak dira.

Ondorioz, biztanleria galtzen dute.

D) MENDEBALDEKO EUROPAKO ESTATUAK.

Ingalaterra, Frantzia edo Holanda dira adibide; hurrenez hurren, 1'6, 1'7 eta 1'7ko ugalkortasun tasak dituzte; berez baxuak dira, baina immigrazioari esker biztanleria mantendu egiten dute (Frantziaren kasuan, baita hazi ere, herrialde bakarrenetarik Europa osoan; 2050 urterako 6 milioi biztanle irabaziko dituela aurreikusten da).

Azken multzo honetan, ALEMANIA da salbuespen handia.

Immigrazioa alde izan arren, herrialde horrek oso ugalkortasun tasa txikia du, eta aurreikuspen guzaien arabera biztanleria-galera nabarmena pairatuko du.

ADIN PIRAMIDE BAT KOMENTATZEKO

- *Zein ereduri dagokion.*
- *Eredu honen ezaugarriak eta bilakaera.*
- *Bilakaeraren ondorioak: etorkizuna.*
- *Ze herrialde izan liteke?*

3. HIRIAK.

Europako hiriak ez dira ez munduko zaharrenak, ez historikoki garrantzitsuenak; beste kultura batzuek askoz tradizio urbano aberatsagoa dute, bai Asian eta bai herrialde arabiarretan: XV. mendera arte, Europako hiri garrantzitsuenak Kordoba, Sevilla eta Granada izan ziren.

Baina, XIX. eta XX. mendeetan, europarrek mundua kolonizatu eta beste gauza batzuen artean bere hirigintza sistema esportatu zuen; egun, munduko hiri gehienek Europa hartu dute eredu beren hazundean. Hirien alde zaharrek beren ezaugarriak mantentzen dituzten bitartean, zabalgunek eta auzune berriak europar ereduaren arabera egin dira: abenidak, etxe-laukiak...

EUROPAKO HIRIEN EZAUGARRIAK ETA BILAKAERA.

Europar, beren osotasunean eta eraldatu gabe mantentzen diren hiri historikoak gutxi dira (gutxi garatu diren hiriak dira, ezinbestean): Venezia, Siena, Padova...

Gainerakoetan, gelditzen dena **ondare historikoa** da. Izan ere, historiak eragin handia du hiriaren barnealdean. Egungo hiriaren hazkundera berdina da toki guzietan, ondare historikoak markatzen du hiri batetik besterako desberdintasun bakarra.

Europako hirigintzaren jatorria urbanismo erromatarrean dago. Hiriak eratzeko orduan beren egitura militarra utzi zuten ondare, kolonizatu ahala hirigintza egitura bilakatu zena. Horren arabera, hiria bi ardatz nagusiren inguruan egituratzen zen: *cardus* (iparraldetik hegoaldera) eta *decumanus* (mendebaldetik ekialdera). Bi hauek batzen ziren puntuan *forum* edo hiriaren bihotz politiko, ekonomiko eta erlijiosoa zegoen.

Horrekin batera, hirigintza musulmanaren eragina nabarmendu behar da. Islama Iberiar penintsulan, Sizilian eta Balkanetan hedatu zen, eta hiri askoz handiagoen tradizio bat ekarri zuen bertara; hauetan, karriken egitura ez da horren garrantzitsua, bizimodua etxe barnean antolatzen delako (eta hau, aldi berean, barnealdeari begira, patioen inguruan fatxaden orde). Ondorioz, oso plano irregularrak nagusitzen dira, eta hala ikusten da Granadan edota Kordoban (azken honek 600 000 biztanle iritsi zituen Erdi Aroan; egun 200 000 ditu soilik).

Erdi Aro bukaeran, alde musulmanekoen gain beste hiri batzuk hasiko ziren Europar garatzen; Italiako hiri estatu handiak (Genoa, Luca, Venezia),artzelona-ren ekimenez sortutako hiri mediterranearrak (Napoli, Parlermo), edota iparraldeko hiri komertzialak (Paris, Amsterdam, Brujas, Bremen, Hanburgo...).

Garai honetan, funtzio oso bereziko hiri tipologia bat garatu zen, babeserako: egitura militarra zuen hiri gotikoa. Hiri hauek mendixka, ibai, kosta eta abarren inguruan garatu ziren, harresiz inguraturik eta toki estrategikoetan, XIII., XIV. eta XV. mendeetan (garai hau da, hain zuzen ere, erromatar zibilizazioaren gainbeheraz geroztik hirigintzaren lehen loraldia). Hiri gotikoaren adibide argia da Gasteiz.

Etxe multzo erregularretan banatzea geroago hasi zen garatzen, Berpizkunde garaian. Barrokoan, berriz, forma kurbatuak azaldu ziren; hiriak ez ziren asko garatu, dena den.

XVIII. mendean, populazioa oso azkar hazten hasi zenean, jende gehiena hirietako **alde zaharretan** bizi zen, baina horiek ezin zuten populazio guzi hori beren baitan hartu; eta

oraindik ez zirenez harresiak eraistera ausartzen, alde zaharrak *bota* egin ziren, eraikinak berriro eraikitzeko, garaiera handiagoarekin; hiria gorantz hazi zen. Hala gertatu zen Baiona, Donostia, Iruñea edota Bilbon. Gasteiz, berriz, salbuespena izan zen, garai honetan garrantzia galdu eta gainbehera erori baitzen. Izan ere, garaian ez zen inolako jarrera kontserbazionistarik ondare historikoaren aurrean; etxe zaharrak deserosoak ziren, eta besterik gabe eraisten ziren berriak eraikitzeko. Honen ondorioa elementu nobleenak bakarrik gelditzea izan zen; elizak, jauregiak, gazteluak...

XIX. eta XX. mendeetara arte ez ziren hasi alde zaharrak babesteko mugimenduak sortzen Europako leku askotan, eta horien ondorio logikoa: zabalguneak. Hiriak ERAZTUNETAN antolatzen hasi ziren:

XIX. mendean, hiri gotikoa harresiturik zegoen, baina populazioa gero eta gehiago hazten ari zen, eta jendea harresiz kanpo bizitzen hasi zen apurka. Gainera, industrializazioa hedatu zen errealtate ekonomiko berri bezala, eta hiriek hainbat aldaketa handi pairatu zituzten: trena, ur eta argi korronea... Harresiak funtziorik gabe gelditu, eta botatzen hasi ziren.

Aldi berean, guzarte klase berriak sortu ziren; langileen eta burgesiaren arteko distantziak hazi egin ziren, eta azken horrek aberastasun handia bildu zuen. Burgesia aberats berri honek ez zuen alde zahar degradatu hauetan bizi nahi, eta hiri handienetan **zabalguneak** eraikitzen hasi ziren harresiak botatzen ari ziren tokietan. Hauek boulevard zabaletan eta etxe-multzo erregularretan antolatu ziren, eta biztanleriaren parte bat (burgesia) bertan kokatzen joan zen. Oso esanguratsuak dira Europako bi hiritako zabalguneak: Paris (bideratu zen lehendabizikoa, Haussmann urbanistak gidaturik) eta Bartzelona (Cerdà arkitektoaren eskutik, erabat erregularra). Euskal Herrian, zabalgune garrantzitsuenak Bilbo (Abando) eta Donostia (Erdialdea) hirietakoak izan ziren, eta neurri txikiagoan Iruñeko (oso txikia). Baionan, berriz, hiri militarra izaki, ez zen baimenik eman harresiak eraisteko, eta zabalgunea herriko etxe inguruko zonaldera mugatu zen.

XX. mendean zehar, hirietan geratutako hutsuneak betetzen joan ziren, eta 1960ko hamarkadarako osaturik zegoen egungo hiri eredu, eraztunetan antolaturik eta bi multzo nagusi bereizten zirelarik; teoriarik, Europan, hirietan berdintasun soziala bideratzen den arren, bi gune hauen artean desberdintasunak nabari dira:

1. ERDIGUNEA. Bertan hartzen ditu ALDE ZAHARRA eta ZABALGUNEAK. Bertan, egun, erdi eta goi mailako klaseak bizi dira (auzoen arabera), edo bestela adineko jendea. Hainbat etxe, bestalde, hutsik gelditzen doaz, eta horietan immigranteak sartzen ari dira (hainbat kasutan, ghetto arriskuak sortuz; adibide argia litzateke Gasteizko alde zaharra).

2. PERIFERIA. Bertan, eremu handia eskatzen duten jarduerak kokatzen dira: INDUSTRIAGUNEAK, MERKATAL GUNEAK eta ETXEBIZITZA AUZO DEGRADATUAK. Ondorioz, periferia oso zabalak garatu dira hiri askotan, eta kasu gehienetan zaila da zehazten funtzio urbanoa non bukatzen den eta non hasten diren jarduera ruralak.

Periferia hauek 1960ko hamarkadatik aitzina garatu dira Europako hiri gehienetan; 1970eko hamarkadatik aurrera Mediterraneo inguruko hirien kasuan.

Egun, Europako populazio gehiena populazio urbanoa da.

KOKAPENA.

Hiri garrantzitsuenak lau multzotan sailkatzen dira:



1) HIRI HANDINAK. **PARIS, LONDRES** eta **MOSKU** dira; hiru hauek 8 milioi biztanle baino gehiago dituzte, eta beren inguruan askoz aglomerazio urbano handiagoak.

2) EKIALDEKO HIRIAK. Mosku eta **SAN PETERSBURGO**, nagusiki.

3) MEDITERRANEOKO HIRIAK. Eskualde honetan, populazioak hiri garrantzitsuenen inguruan kontzentratzera jotzen du, inguruko guneak husten diren bitartean; kasu **MADRIL** (eta Gaztela, hutsik), **BARTZELONA, MILAN, ERROMA** eta **ATENAS** (eta Grezia, hutsik).

4) EUROPA ERDIALDEKO HIRIAK; ALEMANIA, HOLANDA, BELGIKA. Herrialde hauetan ez dago ia hiri handirik (salbuespenak bakarrak **BERLIN** eta **HANBURGO** lirateke). Nagusitzen den prozesua etengabeko urbanizazioa da lurralde osoan zehar; hiri txikiak pilatzen dira, bata bestearengandik hurbil, eskualde urbano zabalak eratuz; horrela, Rhin ibaiaren bailara da Europako eskualde populatuena (18 milioi biztanle), eta ez dago hiri handirik. Bai ordea aunitz hiri txiki: **AMSTERDAM, ROTTERDAM, BRUSELAS, DUSSELDORF, STUTTGART, DORTMUND, ESSEN, KOLONIA, BONN, ESTRASBURGO...**

TIPOLOGIA.

Aparte utzi behar dira metropoli handiak (**Londres, Paris**).

A) HIRI MEDITERRANEOA.

Italia, Grezia, Espainia, Portugal.

Madril, Malaga, Valentzia, Bartzelona, Erroma, Napoli, Atenas, Tesalonika

Oso azkar hazten dira, bereziki 1960eko hamarkadatik aitzina. Hazkundera, beraz, oso kontrol gutxiarekin egiten da lurralde antolakuntza mailan; ondorioz, hiriaren plangintzan pertsona ez da horren garrantzitsua, eta hiria gorantz hazten da.

Gainera, saneamendu eta zerbitzu eta garraio publikoen eskasia nabarmentzen da; bizi baldintzak, orokorki, eskasak dira.

B) EUROPA ERDIALDEKO HIRIA.

Frantzia, Benelux, Alemania, Eskandinavia, Austria

Kopenhage, Amsterdam, Stockholm, Bergen, Helsinki, Aalborg, Bruselas

Hazkundera ez da hain handia eta askoz era kontrolatuagoan bideratu da. Oro har, eraikinak askoz baxuagoak dira, eta zonalde berdeak beti aurkitzen dira hirian integraturik. Zentroa ongi antolatuta dago, baina hiria oso zabaldurik aurkitzen da. Herrialde hauetako biztanleek etxe indibidualetan bizitzeko ohitura dute, eta eredu horrek oso lurralde zabala hartzen du, biztanleria dentsitate txikiarekin.

Hau bideratzeko, beharrezkoak dira garraio-sistema oso garatuak eta geltoki intermodalak erdialdeetan, periferia osoarekin ongi konektatzeko.

C) HIRI BRITAINIARRA.

Erresuma Batua, Irlanda

Edinburgo, Oxford, Belfast, Dublin, Derry

Europa erdialdeko ereduaren jarraipena da, baina dentsitate are baxuagoekin; hemen, etxe indibidualak, lorategiarekin, aurkitzen ahal dira baita hirien erdialdean ere.

Hiri eredu hau ez da batere jasagarria, azken buruan ibilgailu pribatuaren erabilera derrigorrezko egiten baitu.

D) HIRI POSTKOMUNISTA.

Antzinako SESB, Polonia, Txekoslovakia, Hungaria, Errumania, Bulgaria

Mosku, Bukarest

Hiri planifikatuak dira. Pertsonaren garrantzia oso txikia da, ekimen publikoaren eta jarduera ekonomikoaren mesedetan. Jarduera ekonomikoaren (industriaren) eta populazioaren arteko hurbiltasuna bilatzen da, eta beraz elkarrekin aurkitzen dira etxebizitza blokeak (zerbitzu publikoak integraturik dituztenak), industriaguneak eta garraio sistemak.

Kontzentrazio handiko hiriak dira, oso dentsoak. Abenida oso zabalak izaten dituzte, erregimen komunisten ereduari jarraiki. Etxe blokeak, berriz, berdina izaten dira.

E) IPARRALDEKO HIRIA.

Laponia eta Islandia; ipar muturrean.

Oulu

Hiri txikiak dira; batik bat hotzari aurre egiteko prestatuak.

HIRI AGLOMERAZIOAK

Mundu osoan, eta Europan bereziki, gertatu den fenomeno da. Honen jatorrian, Erdi Aroko hirien eredia dago. Horren arabera, hiri nagusi batek bere jurisdikzioaren menpe zituen inguruko lurra, tartean herriak. Ondorioz, hiri nagusiak haztean inguruko herri txikiak ere hazi egin dira, elkartu eta aglomerazio handiak sortu arte.

Hiri aglomerazioek, normalean, **HIRI NAGUSI** bat izaten dute, funtzio ekonomiko, sozial eta administratibo gehienak biltzen dituen: Madril, Londres edo Bartzelona har litezke.

Honez gain, inguruko aglomerazioari dagokionez, bi eredu desberdin bereizten dira nagusiki, Mediterraneoaz ari garen edo Erdi Europaz ari garen.

Horrela, Mediterraneo aldean (Italia eta batez ere Espainian) hiri nagusiaren hazkundearekin batera inguruan zeuden auzo eta herriak hazi egin dira, hiri nagusiarekin bat egin arte, edo honetan lan egiten duten langileen "lotege-auzune" edo **HIRI SATELITE** bilakatu arte; hala gertatu da adibidez Madrilen (Leganés, Alcorcón, Getafe edota Vallecas) edota Bartzelonan (Gràcia, Sants, L'Hospitalet de Llobregat, Badalona). Hiri satelite hauek 20 000 eta 100 000 biztanle artean izaten dute normalean, zenbait kasutan askoz handiagoak izatera ailegatzen ahal baldin badira ere. Beren hazkundearen arrazoiak ugariak izan daitezke, besteak beste komunikazio abantailak, industria kokaguneak edo arrazoi espekulatibo hutsak. Azken hamarkadetan, berriz, hiri nagusiarekin fisikoki bat egiteko beharra nagusitu da (errepide berrien bidez, ur korrontea...), izan ere hiri eta auzo hauek izaten baitira aglomerazioetako gune degradatuenak, eta bertan pilatzen baitira gabezia handienak hirigintza mailan.

Erdi Europako ereduaren ondorioz, berriz, beste era batean antolatutako hiri-aglomerazioak sortu dira. Eskualde hauetan ez dute metropoli izugarririk nahi; eta bere berezko hazkundera kontrolatu, planifikatu eta deskongestionatzea da helburua, hedapena ingurura zabalduz, **HIRI BERRI** direlako bidez. Horrelako aglomerazio baten adibide garbiena Londresena da; hirian 8 milioi biztanle bizi dira, 12 pasa eskualde urbanoan, Londres inguruan aunitz hiri berri sortu baitira, bizi kalitatea ez galtzeko.

Halako aglomerazio batek funtzionatu ahal izateko, periferiaren eta metropoliaren arteko komunikazioek oso onak izan behar dute. Biziguneak, berriz, lantegietatik hurbil eta hauekin ere ongi komunikaturik daude.

Azken urteetan, eredu hau Mediterraneoara ere hedatzen hasi da.

HIRI ESKUALDEAK

Europako hainbat tokitan, **etengabeko hirien presentzia** azaltzen duten eskualdeak sortu dira, azkenean eskualde osoa konplexu urbano handi bat bilakatu arte. Halako eskualdeen artean garrantzitsuenak, mundu mailan, AEBko iparekialdeko kostaldekoa da (Boston-New York-Philadelphia-Washington), eta Europan nagusiki Rhin bailaran, Belgikan eta Holandan aurkitzen dira. Azken honetakoa da esanguratsuenak, **Randstadt** bezala ezagutzen dena, Amsterdam eta Rotterdam artean, 60 x 30 kmko eskualde bat hartuz.

Halako zerbait bideratu ahal izateko, hiriak aktibitate batean espezializatu behar dira: horrela, jarduera guztiak ez dira toki berean kontzentratzen, aglomerazio batekiko duen diferentzia nagusia osatzen duena. Dibertsifikazio handia ematen da: Rotterdam (funtzio

ekonomikoa), Haga (nazioarte mailakoa), Leiden (unibertsitatekoa), Amsterdam (turismoa eta administrazioa), Utrecht (garraio gunea), Gouda (nekazaritzakoa), Harlem (industrial)...

Ondorioz, antolaketa oso zorrotza bideratzen da; jarduera bakoitzak bere tokia izan behar du, eta bakoitzari behar duen lurra ematen zaio, behar hori ongi justifikatzen baldin bada; Amsterdamen, adibidez, ezin da gehiago eraiki, eta biztanleria ez da hazten. Horrez gain, oso ongi komunikatutako hiriak dira, garraio publiko eta azkarrarekin, oso maiz.

GARRAIO AZPIEGITURAK

Garrantzi handia dute; izan ere, Europako hiri ia guzien arazo nagusia **trafikoa** da. Jatorriz, gehienak hiri gotikoak dira, karrika estuekin, eta, trafikoaren arazo hau erregulatzeko, gehienek politika hiriak peatonalizatzea da, horretarako neurri desberdinak bultzatuz:

Lehenik, **garraio publikoa** sustatzea. 200 000 biztanletik gorako hirietan, hiri barneko trena izaten da gehienetan, sistema erradial batekin. Erradio desberdinak lotuz, autobus linea zirkularrak jartzen dira martxan, eta, milioitik gora biztanle dituzten hirien kasuan, metroak osatzen du sarea, erradialki honek ere eta askotan tren sarearen azpitik, merkeagoa izaki biztanle pobreenek erabili ohi dutelarik.

Bigarren, hirien kanpoaldean **“aparkaleku disuasorioak”** jartzea, jendeak bertan kotxea utzi eta garraio publikoa har dezan.

Hirugarrenik, **hiri barneko autobide azkarrak**.

Eta, azkenik, bestelako neurriak, adibidez etxe bakoitzak bere parking propioa izan dezala arautzea.

4. EKONOMIA.

Ekonomiari dagokionez, Europaren bihotza iparmendebaldean kokatzen da, Ingalaterra ekialdea, Frantzia iparra, Benelux eta Alemania mendebaldea hartuz. Bertan kontzentratzen dira errenta eta produktibitate maila altuenak. Bertatik urrundu ahala, berriz, emaitza ekonomikoak gutxituz doaz.

NEKAZARITZA.

Nekazaritzak Europako biztanleriaren % 5 inguru okupatzen du, BPGren % 3 suposatzen duelarik. 15 milioi nekazari daude Europan, eta ia beste hainbeste ustiategi, oro har nekazaritza familiarra bideratzen baita.

Dena den, herrialde batetik bestera desberdintasun handiak daude, hainbat faktore direla medio: batez ere baldintza klimatikoak eta giza jarduera (dela bilakaera historikoa, dela egungo bilakaera). Hainbat herrialde nekazaritzan espezializaturik daude; Grezian eskulanaren % 20 biltzen du, Portugalen % 16, Espainian % 9... eta Ekialdeko herrialde berrietan are gehiago, Poloniako % 30ak bezala. Iparraldeko herrialdeetan, berriz, askoz portzentaia txikiagoak dira (Britainia Handian % 1, Belgika eta Holandan % 2...), baina oso ustiategi produktiboak dira, baserriak baino gehiago enpresak. Langileek nekazaritzarako formazio berezia jasotzen dute, hegoaldeko herrialdeetan ez bezala. Izatez, herrialderik produktiboena Holanda da.

Hiru zonalde handi bereizten dira nekazaritza motari dagokionez:

A) NEKAZARITZA MEDITERRANEOA. Hiru produktu nagusi lantzen ditu: zerealak (garia), mahastia eta olibondoa.

B) Lurralde hezeagoetan, belar gehiago dago, eta horri loturik abeltzaintza garatzen da, bereziki behizaintza.

Europako nekazaritzaren joera industrializatzerara bideratuz doa, gero eta gehiago eta gero eta merkeago produzitzerara.

EUROPAR BATASUNA SORTU ZENETIK, NEKAZARITZAREN GAI-NEKO KONPETENTZIA BRUSELAK DU.

Helburua elikaduraren soberatasuna lortzea da; horretarako, gehiago produzitu beharra dago, jende gutxiago okupatuz. Helburu horri begira, Erromako Itunean hainbat neurri zehazten dira:

1. Europako produktuak kanpoko konpetentziatik babestea.

2. Barneko produktu guzientzat konpetentzia maila berbera ezartzea.

Horretarako, MANSOLT PLANA eta, gero, NEKAZARITZA POLITIKA BATERATUA jarri ziren martxan:

barne mugak ezabatu eta dirulaguntza sistema bat bideratu zen (erretiratuei laguntzeko, jabe berriak formatzeko eta nekazaritza modernizatu eta industrializatzeko).

NPBk arrakasta izan zuen eta Europar Batasuna munduko lehen nekazal potentzia bilakatu da, baina hala ere hainbat arazo azaldu dira:

- a) Superprodukzioa. Adibidez, esnearen sektorean. Honi aurre egiteko, gehienezko kuotak ezarri zaizkie abeltzainei.
- b) Desorekak. Herrialde guzietan ez daramate erritmo bera industrializazio prozesuan.
- c) Lurralde urbano eta ruralen arteko desoreka handiak.

Mansholt planak, gainera, ustiategien gutxieneko neurriak zehazten zituen: 40 hektarea esne-ustiategientzako, 75 zerealentzako. Arazoa da ustiategien batza besteko hedadura 11 hektareakoa dela; konponbidea ustiategi txiki berriei trabak jartzea izan da, eta nekazariak gutxitu ahala lurrak esku bakar batzuetan biltzea, errentagarritasuna handitzeko.

Produkzioa handitzeko hainbat neurri zehatz hartzera bultzatzen ditu NPBk:

ESPEZIALIZAZIOA.

Honen arabera, zona hezeetan (larre ugariak) esne behiak nagusitzen dira; zona hotzetan zerealak, zona menditsuetan artzaintza eta zona epeletan loreak, fruta eta mahastiak.

MEKANIZAZIOA.

Espezializazioarekin errazagoa gertatzen dena.

Hau guziaz, eta produkzioa kontrolatzeko, NEKAZARITZA INDUSTRIA baten garapena.

Honen ondorioz, hainbat **produkzio gune handi** sortu dira:

- 1) (ZEREALAK). Garia, garagarra eta artoa; gero eta gehiago, soja ere bai.
Zonalde lauetan lantzen dira batez ere, aise mekanizatzen ahal diren eremuetan: Frantzia erdialdea, Danimarka, Polonia, Ukraina, Errusia.
- 2) (BELARDIAK). Esne behia.
Europa atlantiarrean eta hainbat mendi zonaldeetan (Alpeak).
- 3) (ARDIA).
Gaztela, Sardinia, Sizilia.
- 4) (ZERRIA). Etxaldeetan hazten dira, eta ez dute lurrik eskatzen.
Tradizionalki Alemanian eta Holandan, baina oso kutsagarriak dira; herrialde horietan araudiak gogortzean, gero eta gehiago Kataluniara mugitzen ari dira.
- 5) (MAHASTIA). Ardoa. Oso sektore espezializatua da.
Inguru oso konkpetitiboak: Bordele, Champagne, Oporto, Duero, Errioxa.

Emaitza onenak, beti bezala, Europako zentru ekonomikoan eta Danimarkan ematen dira; errenta altuak, nekazal populazio gutxi, langile asalariatuak (ez familian oinarritutako ustiategiak) eta formakuntza espezifikoa aurkitzen ahal dira. Periferian, emaitza horiek kaskarragoak dira.

INDUSTRIA.

Europa gune industrializatua da; bertatik abiatu zen, hain zuzen ere, fenomeno hori. Hala ere, industria guneak ez dira modu homogeenan banatzen kontinentean zehar.

Industriak (produkzioa transformatzean datzan jarduera multzoak), Europako biztanleriaren % 30 inguru okupatzen du; enplegu asko sortzeaz gain, aberastasun iturri handia da (BPGren parte handi bat industriatik dator), eta, zerbitzu asko ere industriari loturik garatzen direnez, **sektore estrategikoa** da ekonomia europarrean.

1. ENERGIA

Egun, energia da Europako ekonomiaren ahultasun handiena.

XX. mende erdialdera arte, Europako herri gehienek behar zuten energia iturri propioetatik lortzen zuten artean (ikatzetik, nagusiki), garai honetan iraultza etorri zen, eztanda-motorrarekin batera: petrolioaren erabilera nagusitu zen.

Une horretan, petrolioaren produkzioa eta prezioa Europako potentziek kontrolatzen zuten, baina egoera hori aldatzen joan zen Asia eta Afrikako koloniek independentzia lortu ahala. 1972. urtean, Israel eta Egiptoren arteko gerraren ondorioz, petrolio produktoreak bildu eta prezioak igotzea erabaki zuten presio politikoa egiteko neurri gisa; igoera honek agerian utzi zituen industria-sistema okzidentalaren gabeziak, krisi ekonomiko larrian sartu baitzen, lehengaien eta eskulanaren garestitzearekin batera. PETROLIOAREN KRISIA deitzen dena da.

Orditik, Europa energia-menpekotasun larri horren konponbidearen bila dabil; herri gehienek martxan jarri dituzte energia aurrezteko eta iturri berriak bilatzeko planak.

Gaur egun, EB-ren energia menpekotasuna % 40 ingurukoa da, baina aldatu egiten da herrialdeen arabera:

A) Herrialde gutxi batzuek bere indar energetikoak asetzen dituzte, Ipar itsasoko gas eta petrolio ustiatzei esker: Britainia Handia, Norvegia, Holanda eta, neurri txikiago batean, Danimarkak. Norvegiaren kasuan, gainera, energia hidroelektrikoaren garapen adizionalari esker, argindarra doan da eta energia elektrikoa esportatzeko gaitasuna dute.

B) Frantziak eta Alemaniak menpekotasun tasa hori erdira murriztea lortu dute (% 20ra), petrolioaren kontsumoa murriztu eta energia nuklearra bultzatuz.

C) Beste herrialde batzuek menpekotasun ia erabatekoa dute; adibidez, Italiak (% 90)

D) Ekialdeko Europako herrialdeek, urritasuna dutenek, Errusiarekiko menpekotasun energetiko handia dute; hauetan zehar iristen da gas errusiarra mendebaldeko Europa, eta gatazkak daudenean arazo larriak sortzen dira.

ENERGIA ITURRIAK.

Ikatza.

1960ko hamarkadara arte energia iturri nagusia izan zen; Europan ugaria da, mendikate zaharretan bereziki (Asturias, Ingalaterra iparraldea, Sarre, Ardenes).

1960ko hamarkadatik aurrera, industrializazio berria garatu zenean, ikatzak petrolioari utzi zion lekua, era bere erabilera beherantz egiten hasi zen etengabe, produkzioa mantendu arren (% 14-18 bitartean). Petrolioaren igoeraren aurrean, "bertako" energia alternatibo bezala aurkeztu da; hala ere, mendebaldeko Europak erreserban uzten ditu bere ustiategiak, eta ikatza ere kanpotik inportatzen du.

Energia honen arazo nagusia erre egin behar dela da, karbono dioxidoa atmosferara botatz; beraz, Kyotoko protokoloaren arabera bere erabilera gutxitu egin behar da. Ondorioz, momentu honetan bere erabilera % 12 inguruan dago.

Hidrokarburoak: petrolio eta gas naturala.

Hauetako dagokienez, Europa defizitaria da; petrolioak Europan kontsumitzen den energiaren % 45 suposatzen du, eta gasak beste % 18; munduan kontsumitzen den petrolioaren % 18 Europan kontsumitzen da.

Europan duen petrolio eta gas ustiategi propio bakarra Ipar itsasoan kokatzen da; bertan bi poltsa daude, bata Ingalaterra eta Holandaren artean eta bestea Norvegia eta Eskoziaren artean. Oroz bat, munduko erreserben % 8 suposatzen du, baina, ustiatzeak dakartzan zailtasunen ondorioz, % 4 bakarrik kontsumitzen da. Europan bere beharren laurdena produzitzen du horrela (erreserban erdia izan arren)

Errusiari dagokionez, petrolio eta gas poltsa ugariak ditu Kaukason, Siberian eta Arktikoan, eta nagusitasun energetiko horri probetxua ateratzen dio.

Defizientzia hau konpentsatzeko, **errefineria eta oleoduktu sare** izugarria garatu da kontinente osoan zehar; honek azaltzen du portu sarearen garrantzia: Rotterdam (munduko porturik handiena, izatez), Hanburgo, Genoa, Marseilla, Algeciras...

1990eko hamarkadatik aitzina Europan gas naturalaren aldeko apustua egin zuen, teoriarik ugariagoa baitzen (Frantzia, Alemanian, Ipar itsasoan...); baina hori ere agortuz doa, eta ondorioz garestituz. Inportaziora jo behar izan da hemen ere.

Nuklearrak.

1970eko hamarkadatik aurrera, erregai fosilen krisiarekin batera, energia nuklearrak igoera nabarmena eta etengabea izan du; ia alternatiba bakar bezala planteatu izan da. 1980ko hamarkadan, herrialde guztiak hasi ziren nuklearrak garatzeko planak egiten eta zentral nuklearrak eraikitzen. Geroztik, gizarte-mugi-menduen ondorioz, programa hauek neurri desberdinean garatu dira, gehiago Frantzia adibidez, eta gutxiago Holanda, Danimarka, Italia edota Irlandan.

Europan kontsumitzen den energia osoaren % 14-15ek jatorri nuklearra du, batez ere argindarrari dagokionez (hemen, heren batera igotzen da portzentaia). Frantziak, adibidez, bere argindarraren % 100 nuklearren bidez estaltzen du, eta esportatu ere egiten du Espainia edota Italiara.

Frantzia da, hain zuzen ere, mundu mailan zentral nuklear gehien duen herrialdea, atzetik Alemania duela; bigarren maila batean, Errusia eta Britainia Handia leudeke.

Asmoa energia nuklearraren garrantzia ugartzea izan da gaur arte; zentzu horretan doaz ikerketa gehienak, hain kutsakorak ez diren prozesuak bilatzera... 2011n Japoniak bitarteko desastre nuklearraren ondorioz, polemika berriro piztu da.

Menpekotasun honen aurrean, Europar Batasunak 1970eko hamarkadan bertan hartu zituen lehen neurriak. Lau helburu finkatu ziren:

1) Hazkunde ekonomikoa eta energia-kontsumoa ez zirela batera etorri behar. Lehen aldiz, SOSTENIBILITATE kontzeptua garatu zen.

Hasieran abalegin handia egin zen hau lortzeko; baina gero oso maila apalean lortu da, herrialdeek ez dutelako zentzu honetan neurririk hartzeko derrigorrik. Bestaldera, jendearen borondatearen menpe uzten da energia aurrerzea, eta oro har energia kontsumoa mantendu egin da.

2) Petrolioarekiko menpekotasuna % 40tik beheiti kokatzea.

Ez da lortu; egun, menpekotasun hori % 45ekoa da. Gainera, helburuetan ez da gas naturala aipatzen, eta horren hazkundera handia izan da. Guzira, hidrokarburuek Europako energia kontsumoaren bi heren errepresentatzen dituzte. Ez da alternatibarik bilatu.

3) Energia berri alternatiboak garatzea.

Bereziki bi planteatu ziren: ikatza eta energia nuklearra.

Oraingoz, bi horiek urrun daude alternatiba eramangarri bat osatzetik; ikatzaren erabilera murriztu behar izan da Kyotoko protokoloaren ondorioz, eta nuklearren aurziak polemika handia eragiten du bere kutsagarritasuna eta hondakin erradiaktiboak direla eta; momentuz, geldi dago.

4) Energia garbi eta berriztagarriak sortu eta garatzea;

Haize errota, eguzki plakak, zabor-metanoa, energia hidraulikoa...

Hauen presentzia egungo mapa energetikoan testimoniala da: % 2 eta 5 artean, gehiena energia hidroelektrikoak betetzen duen artean. Energia hauek garatzen gehien saiatu den herrialdea Alemania izan da. Dena den, oso inbertsion handiak eskatzen dituzte, eta errentagarritasuna ez da berehalakoa, beraiz dirulaguntzen bidez garatu dira beti.

2. EUROPAKO SEKTORE INDUSTRIALAK ETA HAIEN KOKAPENA.

Europako multinazional handienek industria petrokimikoan edota automobilgintzan oinarritzen dute beren aktibitatea. Jatorriari dagokionez, Frantzia, Alemania eta Italiakoak dira garrantzitsuenak.

Industria bat garatzen hasten denean, produkzioa saltzeko eta konpetitiboa izateko berrikuntzak inkorporatzean oinarritzen du bere aktibitatea; fase horretan, industria gaztea dinamikoa da, eta hedatu egiten da. Koiuntura horretan, konpetentzia oso handia da enpresa desberdinen artean. Baina une bat iristean, berrikuntzak agortu eta industria hori heldu bilakatzen da, eta orduan leiha produktibitatea mantendu eta kostuak jaistean fokatzen da, produktu ahalik eta merkeena eskaintzeko kalitatea mantenduz. Koiuntura honetan, askoz zailagoa gertatzen da dinamismoa eta hedapena mantentzea.

Kontinentean zehar agertzen diren sektore industrial desberdinen artean, hiru multzo handi bereizten ahal dira:

A) Sektore helduak edo tradizionalak.

Sektore zaharrenak dira, industrializazioa abiarazi zutenak XIX. mendean, edo XX. mendean zehar garatutako beste sektore tradizional batzuk.

Oso berrikuntza gutxi inkorporatu dituzte, eta, egun garrantzitsuak izan arren oraindik, kanpoko enprekin etengabe konpetitu beharra dute kostuak jaitsiz, eta ondorioz lanpostuak sortu orde, galdu egiten dituzte.

Horregatik esaten da egun krisian dauden sektoreak direla.

Siderometalurgia; labe garaiak.

Industrializazioa abiarazi zuten sektoretarik bat da, antzina langile gehien okupatu zuena, hain zuzen ere.

1970eko hamarkadako krisia oso bortizki pairatu zuen, petrolioak kostu guztiak garestitu zituelako. Garai horretan sortu zen kanpoko eskualdeen leiha (Hegoafrika kasu), eta horien aurka prezio europarrek ezin dute konpetitu.

Iraun ahal izateko, sektoreko prezioak asko jaitsi ziren, eta horrek galera handiak eragin zituen. 1980ko eta 1990eko hamarkadetan enpresa askok itxi behar izan zuten. Testuinguru horretan, sektoreko lanpostuen erdia baino gehiago galdu egin zen.

Egun, Europar Batasunaren laguntza bereziei esker, egoera orekatu egin da. Produktzioa mantendu egiten da, baita igo ere, baina mekanizazioaren eraginez lanpostuak galtzeko joera dago.

KOKAPENA.

Atlantiar ardatzean: Ingalaterra, Flandes, Ruhr, Britainia eta Nantes ingurua, Euskal Herria.

Ehungintza.

Industrializazioa abiarazi zuen beste sektore nagusia da, egun krisian hau ere. Egun, hainbat berrikuntzari esker (lehengaiak ere kanpotik ekartzea; zuntz berriak eta sintetikoak, teknologia berriak...), berreskurapen prozesu batean dago; hala ere, hau lortzeko, Asiako ehungintzaren inportazioak mugatu behar izan dira.

KOKAPENA.

Jatorrian, ikatza eta ura hurbil zuten eskualdeetan kokatu zen, eta bertan segitzen du, tradizioz: Belgika, Holanda eta Alemania mendebalde, Ingalaterra iparralde, Lyon, Altsazia-Lorena, Milan-Turin, Llobregat harana.

Ontziolak.

Itsas garraioak eta portu azpiegiturek garrantzia handia dute Europan. Ontziolen industria XX. mende hasieratik garatu zen, eta hazkunde handia izan zuen. 1960ko hamarkadara arte lanpostu asko sortu zituen, baina 1970eko krisi ekonomikoak kalte handia egin zion. 1985.-1990. urteen artean, itsas garraioaren garrantziaren hazkunde handia izan zen, batez ere portuei zegokienez, eta berreskurapen txiki bat bizi izan zuen. Dena den, egun, desmantelatzen ari den industria-sektorea da, ezin baitu kanpoko enprekin konpetitu (Korea, adibidez, ontzigintzan espezializatu den eskualdea da, askoz kostu txikiagoekin).

Ontziolen adibidea da adibidez, Bilboko itsasadarreko industria; egun galdua.

B) **Sektore gazteak, dinamikoak.**

Sektore berrienak dira, oraindik koiuntura konpetitibo batean daudenak. Beren garapena asmakuntzan eta berrikuntzan oinarritzen dute, eta konpetentzia oso bortitza da.

Automobilgintza.

Munduko automobilen % 60 Europan ekoizten da, eta sektore horri lotutako multinazional garrantzitsu asko dago. Txekiak eta Eslovakiak, adibidez, munduko gainerako herrialde guzietan elkarrekin baino automobil gehiago ekoizten dituzte.

Europan, merkatu oso zabala du, gainera, automobilgintzaren sektoreak, erosteko ahalmen handikoa. Espainian, adibidez, Afrika osoan baino traktore gehiago dago.

Konpetentzia oso gogorra da. AEBetako, adibidez, herrialde horrek EB-k baino biztanle gutxiago izan arren, horiek askoz gehiago kontsumitzen dutelako. Hala ere, merkatua Europako enpresen esku dago. Europatik kanpo, konpetentzia gogorrena Koreako automobilgintza sektorea da.

Krisia pairatu zuen 1970eko hamarkadan, baina sektore zaharrek baino askoz arinagoa. Egun, heldutasun fase batean sartzen ari da.

KOKAPENA.

Multinazionalen egoitzak Alemanian, Frantzia edo Italian daude, eta bertan diseinatzen dira automobilak; produkzioa, berriz, kostuak merkeagoak diren herrialdeetan deslokalizatzen dira: Espainia eta, berriki, Txekia eta Eslovakia.

Industria kimikoa.

Oso sektore gaztea da, eta berrikuntza asko inkorporatzen ditu. Europa da arlo honetan ekoizpenaren erdigunea; kontzentrazio handia ematen da, multinazional handi eta garrantzitsuekin: Bayern (alemaniarra), Michelin (frantsesa)...

KOKAPENA.

Sektore honetan, multinazionalen egoitzak eta produkzio guneak elkarrengandik hurbil egoten dira, eta oso kontzentratuak hiru gunetan: Paris inguruan eta Rhin eta Po ibaien bailarak.

Elikagai industria.

Azken urteetan etengabeko hazkundera izan duen sektorea da, Europar Batasunaren nekazal politikari esker kontinentea lehen nekazal potentzia bilakatu baita; honi loturik sortu da industria hau, eta egun hazkunde batean dago. Bere funtsa nekazal produkzioa eraldatu eta kontsumitzeko prest merkaturatzea da; honi esker, industria honek botere handia lortu du, nekazal produkzioa kontrolatzen baitu.

KOKAPENA.

Produkzioguneetatik eta komunikabideetatik (errepideetatik) hurbil kokatzen da, eta baita merkatuetatik hurbil, hirien inguruan. Garrantzitsuenak Frantzia, Alemania eta Espainian daude.

C) Sektore oso berriak.

Bada beste sektore multzo bat, erabat berriak direnak, eta ekoizpen sistema guziaz berritzeko gaitasuna dutenak. Beraz, oso sektore estrategikoak dira.

Informatika.

Mundu mailan, Europa bigarren plano batean gelditu da AEBen eta Japoniaren mesedetan; oso sektore garrantzitsua da, aplikazioa duela beste sektore guzietan, baina hala ere lanpostu gutxi sortzen du.

Aeronautika.

Ekoizpen sistema osoan eragina duen sektore berritzailea da; material berriak hemen sortzen dira (arinagoak eta gogorragoak), gero beste industrietara hedatuko direnak.

Europak bere enpresa propioak ditu (Airbus, sateliteak martxan jartzeaz arduratzen diren ikerketa guneak...). Bere garrantzia estrategikoa dela eta, oso sektore militarizatua da. Konpetentziarik handiena AEBetatik heldu da.

KOKAPENA. Oso sarri, gune militarren ondoan: Baiona (Frantzia).

Elektronika.

Arlo honetan, multinazional garrantzitsuak dauden arren (Siemens, Philips, AEG, Olivetti...), enpresa ertain eta txikien konpetentzia handia da (Fagor).

Nagusiki Alemanian eta Holandan kokatzen diren industriak dira; konpetentzia AEBtik heldu zaie nagusiki.

MERKATARITZA.

1. BARNE MERKATARITZA.

Europar Batasunaren aberastasun handiena, zalantzarik gabe, bere barne merkatu handia da, ia 500 milioi kontsumitzaileekin. Herrialde gehienek harreman komertzial garrantzitsuenak Batasunaren baitan ematen dira (salbuespena bere merkatu postkolonial propioa atxiki duen Erresuma Batua izan liteke).

Potentzia nagusia eta eragin-eremu zabalena duena ALEMANIA da; erdialdeko herrialde gehienek bazkide komertzial nagusia da (Beneluxeko herrialdeak, Polonia, Txekiar errepublika, Eslovakia, Austria...). Bigarren maila batean FRANTZIA dago, Alemania eta Espainiaren bazkide garrantzitsuena; eta askoz atzerago BRITAINIA HANDIA (bere eragina Norvegia eta Irlandan hedatzen duena baina Europaz kanpo bere merkatu propioa duena), eta ERRUSIA (Europa ekialdeko estatu gehienek gainean eragin nabarmena izaten segitzen duena).

Azken eskualde honetan, Ekialdeko Europan, 1990eko hamarkadan kapitalismoa sartzean, sistema publikoa erabat desegin zen; multinazional handiak sartu eta kaos urte batzuk bizi zituzten; egun, estabilizazio prozesuan dago.

2. KANPO MERKATARITZA.

Kanpora begira, Europaren merkataritza balantza ezkorra da; munduko esportazio-en % 12 bidaltzen du, baina inportazio globalen % 13 jaso (datu hauek aldatu egiten dira herrialdeen eta hauen bazkide komertzialen arabera).

Balantza ezkorrena duen herrialdea Britainia Handia da; esportatzeko gaitasun handiena duena, berriz, Alemania.

Kanpora produktu industrialak bidaltzen dira, kalitate onekoak: makineria, produktu bukatuak oro har, eta, gero eta gehiago, elikagaiak: produktu elaboratuak, ardoa, gazta... Inportazioak, berriz, lehengaiak izaten dira normalean; baita informatika aplikazioak ere.

Esportazio hauetariko gehienak AEBra bidaltzen dira, produktu europarrak kalitatearekin identifikatzen baitira. Bestalde, balantza komertziala bereziki ezkorra da Japoniarekin (herrialde esportatzailea, baina inportazio gutxi onartzen duena eta hauei traba handiak jartzen dizkiena), arabiar herrialdeekin eta Asia ekialdeko herrialdeekin oro har.

GARRAIOA.

Garraioa oso sektore estrategikoa da:

- Aberastasunaren eta enpleguaren % 6 aportatzen ditu (nekazaritzak baino gehiago).
- Garraio azpiegituren bitartez gainerako sektoreak dinamizatzen ahal dira.
- Diru publikoaren % 40 garraioetara zuzentzen da, Europan.

1. TRENBIDE SAREA.

Ez da errentagarria; XX. mende erdialdetik aitzina desagertzerara jo du, eta linearik estrategikoenak bakarrik mantendu dira. Azken urteetan, berriz, gero eta proiektu gehiago sortu dira trena ardatz hartuz, garraio sistema garbia izateaz gain, merkantzia edota bidaiari kopuru handiak batera garraiatzeko aukera ematen baitu. Dena den, ez da trenbide sistema zaharretara itzultzen, berriak ikertu baizik.

A) MERKANTZIAK GARRAIATZEKO.

Batez ere zailtasun fisikoak dauden inguruetan: Suitzatik Italiara, Alpeetan zehar; Frantziatik Ingalaterrara, Mantxako kanala lur azpitik zeharkatuz...

B) HIRI BARNEAN.

Hiri barneko trafikoa arintzeko sistema erabilgarriak dira, besteak beste, tranbiak edo metroak. Alemanian eta, bereziki, Frantzian, asko garatzen ari dira.

C) ABIADURA HANDIKO TRENA (AHT-LGV-TAV).

Distantzia ertainetan (300-500 km artean) bidaiariak garraiatzeko, distantziak asko murrizten ditu; horrexegatik, Europako proiektu nagusiak momentu hauetan linea hauen inguruan garatzen ari dira.

Martxan dauden linea nagusiak (ardatz ekonomikoekin kointzidituz):

1. Londres-Paris-Bruselas-Amsterdam-Frankfurt
2. Paris-Lyon-Turin-Milan-Venezia

Proiektu nagusiak:

3. Eurotunela linea azkarrarekin lotzea Liverpooleraino.
4. Erroma-Milan-Bartzelona-Madril-Sevilla-Lisboa

(Azken honekin kointzidituz, Espainian asko garatzen ari dira AHT lineak; munduko herrialdeen artean abiadura handiko linea gehien dituztenetarik da).

Trenbide sistema hauen arazo nagusia beren inpakto ambiental handia da, eta, momentuz pertsonak garraiatzeko soilik erabiltzen denez eta bere kostu handiak kontutan atxikirik, ez da errentagarria, gainera.

2. ERREPIDE SAREA.

Europako pertsona-mugimenduen % 50 eta merkantzien % 60 errepidez egiten dira. 60 000 km baino gehiagoko autopista sarea existitzen da, eta hazten; baina trafikoak (eta, beraz, eskariak) ere gora egiten du etengabe. Ibilgailu pribatua ere oso hedaturik dago; bat 2'8 pertsonako (ekialdeko batz bestekoak kontutan harturik).

Egun martxan diren proiektu nagusiak Iberiar penintsulan (Madril eta Lisboa lotuz) eta Grezian (Patra-Atenas-Tesalonika) bideratzen ari dira; ekialdeko Europan, berriz, konexiorik eza arazo handia da (Errumania bezalako herrialde handi batean autopista bakarra dago, adibidez, Bukarest eta Konstantza lotzen). Europaren gainerakoan, errepide sarea oso garaturik dago, eta hainbat kasutan oztopo fisikoak ere gainditu dira, garraio astunerako izan ezik; adibidez, Alpe edo Pirinioak bezalako mendikateetan, edo Danimarkako irla ugarietan (itsaso gaineko zubiak eraiki dira azken herrialde honetan, batzuk besteekin komunikatzeko, eta Danimarka eta Eskandinavia konektatzeko).

3. AIREKO GARRAIOA.

Europa barneko distantziak ez dira handiak; ondorioz, AEB edo Errusia bezalako beste eskualde batzuekin alderatuz, hegazkinen erabilera txiki samarra da. Dena den, azken urteetan hazkunde nabarmena izan du, zerbitzuak merketzearekin eta Europako herrialdeen arteko harremanak estutzearekin batera.

Hiru dira aireportu garrantzitsuenak: Londres eta bere bost aireportuak, oso bereziki **Heathrow**; Paris eta bere bi aireportuak, batez ere **Roissy-Charles de Gaulle**, eta **Frankfurt**. Bigarren maila batean leudeke Amsterdam (**Schiphol**), Madril (**Barajas**), **Bruselas**, **Milan**, **Erroma**, **Kopenhage** edota **Bartzelona**. Europako 15 aireportu nagusien artean, hiriaren funtzioei loturik ez dagoen bakarra **Palma Mallorcakoa** da.

4. ITSAS GARRAIOA.

Europak 30 000 km nabigagarri ditu bere ibaietan, batez ere ipar isurialdekoetan (Mein eta Rhin, kanalen bidez loturik daudenak Danubiorekin; Rhinek, gainera, konexioak ditu Rhône ibaiarekin, eta honen bidez mediterraneoarekin). Ibai hauek egokiak dira trafiko astuna garraiatzeko, baina beren desabantaila nagusia beren mantsotasuna dute, eta errepideen aldean atzeraturik gelditu dira. Egun, haien funtzio nagusia turismokoa da.

Itsasoari dagokionez, industriaren krisiarekin gainbehera garai bat bizitu bazuen ere, egun, globalizazioarekin, itsas garraioa bihurtu da munduko garraio-biderik erabiliena, eta goranzko dinamika batekin, gero eta gehiago dena itsasoz egiten baita. Portu nagusiak iparraldean daude: **Rotterdam** (munduko porturik handiena, eta Europako merkataritza sarearen giltza, bertatik sartzen baitira atzerriko produktuak eta oleoduktuak Europara), **Anberes**, **Hanburgo**, **Amsterdam**, **Londres** edota **Le Havre** (Parisko aktibitatea bideratuz). Mediterraneoan, portu garrantzitsuenak **Genoa** eta **Marseilla** dira.

5. GARRAIOA ETA GUNEAREN ANTOLAKETA.

Europako trafiko gehiena hiru ardatzen inguruan kontzentratzen da:

A) Paris-Lyon-Marseilla.

B) Londres-Amsterdam/Rotterdam/Anberes-Kolonia-Geneva/Zurich-Milan-Genoa.

C) Londres-Amsterdam/Rotterdam/Anberes-Kolonia-Munich-Bolonia.



Hiru korridoreen artean distantzia txikiak daude (400 km inguru).

Honek botere ekonomikoa islatzen du; Europako errenta *per capita* handienak, zonalde industrialki dinamikoenak eta hazkunde tasa handienak hemen daude. Eskualde pobreenak, berriz, “erdigune” honekin komunikazio txarrak dituztenak dira, “periferia” osatzen dutenak. Euskal Herria, adibidez, korridore garrantzitsu batean dago kokaturik: Paris-Kadiz (hiri hori da Afrikako ate nagusia).

TURISMOA.

Turismoa ez da aktibitate berri bat, XIX. mende erditik baitarama garatzen. Hasiera batean eliteko turismo murrizta izan zena, 1950. eta 1960. hamarkadetatik aitzina demokratizatzen eta masifikatzen hasi zen, egungo turismo fenomenoaren bidea emanez, bere ezaugarriekin:

- Turismo MASIBOA. Jende gehiena joaten da oporretan (hauek legez arauturik daude Europan, izan ere).
- URTAROKOTASUNA. Hilabete jakinetan kontzentratzen da, oro har uztaile eta abuztuan.
- ABERASTASUN ITURRI bilakatu da; gero eta gehiago dira beren jardueraren turismoan oinarritzen duten eskualdeak.
- Gehienbat HURBILTASUNEAN mugitzen da; jende gehiena bere herrialdearen baitan mugitzen da, eta atzerrira ateratzen direnak, normalean, Europa barnean gelditzen dira.

Turismoa ez da fenomeno mundial bat; gune turistiko nagusiak Europako eta AEBetako puntuetan daude, eta bi eskualde horietan ematen dira fluxu turistiko nagusiak. Europari dagokionez, mugikortasunaren arloan distantzia txikiak bilatzen dira; egun bat kotxez, edo bizpahiru ordu hegazkinean, ez gehiago.

Turismoaren norabide nagusiak, berriz, iparretik hegoaldera (Frantziako kostalde mediterraneoan, Italia) edota hegomendebaldera (Espainiako kostalde mediterraneoan, Portugal hegoaldean) doaz. Hirugarren linea bat garatzen ari da hegoekialderantz (Grezia, Kroazia). Beste urtaro batean, baina mendi zonaldeetarantz ere mugimendu handia izaten da, Pirinioetarantz eta, bereziki, Alpeetarantz.

Turista gehien bidaltzen duten herrialdeak.

FRANTZIA. Urtean 56 milioi turismo bidaia egiten dute frantsesek, hau da, ia denak ateratzen dira; gehienbat Frantziara bertara joaten dira, eta 10 milioi soilik dira atzerrira joaten direnak (Aljeria eta Maroko bezalako kolonia ohietara, eta Espainiara)

INGALATERRA. Urtean 50 milioi irteera inguru egiten dute, horietatik 20 milioi kanpora, oso nabarmenki Espainiara.

ALEMANIA. Urtean 40 milioi irteera inguru, eta gehienak (30 milioi) beste herrialdeetara; kasu honetan, aukeraketa askoz zabalagoa da: Espainia, Austria, Grezia, Dalmazioa...

Turista gehien jasotzen duten herrialdeak (herrialde irabazleak).

Bidali baino turismo gehiago erakartzen duten herrialdeak dira, eta ondorioz BPG-ren parte garrantzitsu bat jardueraren horretatik lortzen dutenak. Gehienak Mediterraneo inguruko herrialdeak dira, izan ere turista gehienek atsedena bilatzen baitute (% 10), dibertsioa (% 15) eta, batez ere, eguzkia (% 35). Bigarren maila batean, natura eta kultura gelditzen dira.

FRANTZIA. Frantsesen barne-mugimendu ugarietz gain, kanpotik ere aunitz bisitari jasotzen du, eta oso turismo eskaintza dibertsifikatua du: urbanoa (Paris), hondartzakoa (euskal kostak, Landak, Mediterraneoak), mendikoa (Pirinioak, Alpeak), erlijiosoa (Lourdes)...

ESPAINIA. Bereziki kostalde mediterranea, Andaluziako alde atlantiarra eta Kanariar irlak dira turistikoak. Honen ondorioa kostalde basatiki urbanizatu bat eta itsasaldearen saturazio handia dira: Alacant, Benidorm, Dènia...

GREZIA. Hemen ere kostaldeko turismoa bideratu da, baina ingurune naturala ez da horren bortizki suntsitu. Peloponeso, Kreta eta irlak (Santorini, Mykonos, Korfu) dira, batez ere, turistikoenak.

ITALIA. Kostaldeko turismoari (Sardinia, Sizilia) ez zaio Espainian eta Grezian bezain besteko garrantzia eman, eta horren ordeztan ondare historikoa nagusitu da (Erroma, Toskana, Venezia); baita mendiko turismoa ere (Alpeak, Aosta harana).

KROAZIA. Kostalde oraindik birjin samarra mantentzen du, eta horri etekina ateratzen dio. Ez du hondarrik, harrizko kostaldeak baizik.

PORTUGAL. Hondartzako turismoa da, batez ere Algarve, Azoreak eta Madeira.

Zonalde galtzaileak.

Jaso baino turismo gehiago bidaltzen duten eskualdeak dira. Horrek ez du esan nahi turistikoak ez direnik, baina maila askoz apalago batean.

BELGIKA. Brujas bezalako guneak kenduta, ez da batere turistikoa.

HERBEHEREAK. Amsterdam da gune turistiko bakarra.

ERRESUMA BATUA. Herrialde honek definiturik ditu bere eskualde turistikoak: 10 Ingalaterran (adibidez Kornuilles, Lake district eta Londres bera), 11 Eskozian (Highlands, Orkada irlak, Edinburgh hiria...) eta 4 Galesen (bereziki iparraldea, oso ingurune rurala mantendu baita bertan, aunitz parke natural eta zuhaitzirekin).

NORVEGIA. Zonalde bakarra da turistikoa: fiordoek eskualdea eta Bergen hiria.

ALEMANIA. Zonalde turistiko gutxi ditu, eta turista alemaniar gehienak atzerrira joaten dira. Eskualde turistikoen artean aurkitzen dira: Rhin bailara hegoaldeko gazteluak, Bavariako Alpeak (Austriako mugan) eta Oihan Beltza.

AUSTRIA. Turismoa Alpeetan eta Danubio eskualdeetan polarizatzen da; bi gune oso desberdin. Turismo urbanoa ere nabarmengarria da: Viena, Salzburgo...

